

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Hezkuntza kontseilariak Sarriguren bisitatu eta handitzeko lanen egokitasuna eta erritmo ona egiaztatu ditu

Departamentuak handitzeko lanak egin ditu Sarrigurengo bi ikastetxe publikoetan. Joakin Lizarragako lehen fasea ikasturtearen hasieran estreinatu zen eta Uriz Pi Ahizpak IPko 6 gela berriak urtarilean prest egongo dira

Asteartea, 2018.eko azaroak 27

Gaur goizean, Hezkuntza kontseilari Maria Solana Aranak eta Azpiegituren Zerbitzuko zuzendari Eneko Ardaiz Ganuzak Sarrigurengo Joakin Lizarraga eta Uriz Pi Ahizpak ikastetxe publikoak bisitatu dituzte, Alfonso Etxeberria Goñi alkatearekin eta eraikuntza-enpresaren ordezkariekin batera.

Lehedabizi, D ereduko Haur eta Lehen Hezkuntza ematen duen Joakin Lizarraga ikastetxeko zuzendariak zentroaren zabalkuntza erakutsi du. Irailean ikasturtea hasi zenez geroztik, ikastetxeak 3 ikasgela berri eta bilegi berri bat ditu. Joakin Lizarragako zuzendaritza taldearekin bildu eta iritziak trukatu ondoren, Hezkuntza kontseilaria eta bere taldea Uriz Pi Ahizpak HLHIPera abiatu dira.

Bi hizkuntza eredu dituen ikastetxe honetan gauzaturiko zabalkuntza-lanei esker, 6 gela eta komun berri sortu dira ikasle eta irakasleentzat. Guztira, 553,05 metro koadroko azalera, eraikinaren gainean altxaturiko beste solairu batez handitutakoa. Gainjarritako zabalkunde honen bigarren fasea ia-ia bukatuta dago eta neguko oporren ondotik estreinatu ahalko dituzte. Bisita probestuz, Solanak Uriz Pi



Solana sailburuaren taldea bisitaren une batean. Atzealdean, ezkerrean eta eskuinean, bi ikasteetxeak.



Ibilbidearen une bat, Uriz Pi Ahizpak ikastetxeko handitutako gunean.

Ahizpak Ipko zuzendaritzarekin ere hitz egin du.

Bisita ikasleen jolasordurekin batera bukatu da.

Hezkuntza kontseilariak lanen egokitasuna eta erritmo ona egiaztatu ahal izan ditu. Handitze lanen entrega eta erabilpen praktikoa aurreikusitako epeak bukatu baino lehen egin ahalko dira. Hau guztia, adjudikazioa 902.646,64 eurotan (BEZ barne) eskuratu zuen Rio Valle Construcción y Obra pública, S.L. enpresaren lanari esker.

Galería de fotos



Kontseilariak eta bere laguntzaileek topo egin dute patioan ikasleekin.



Uriz Pi Ahizpak zentroaren korridoreetako bat.